



39 Idazle nafar

Askoren artean

ISBN: 978-84-7681-992-0

Pamiela Kondagintza 34

Rustikan koadernatua, azal hegalekin

15 x 21 cm 224 or.

17,00€

Nafar narratibaren lagin honetaz

2016an egungo nafar narratibaren lan bat aurkeztu zekigun. Bertan, erdal ikuspegtik egina zenez, euskarazkoa bi idazleren lanekin ordezkatzeko zen; hots, indarrean dagoenari jarraiki, marginaliako literaturgintza gisan, erabat gutxietsia. Baitezpadakoa zen, beraz, euskarazko nafar narratibaren berri eman zezakeen beste ekimen bat abiaraztea.

Ekimena aitzina eramateko, hainbat idazlerekiko kontaktuak eskuratu behar izan ziren (horretan, Jesús Arana eta Iñaki Azkonaren laguntza ezinago baliosa izan zen). Ondoren, asmoaren berri ematearekin batera Nafarroa Garaiko zein Behereko 40 idazle baino gehiagori, parte hartzeko gonbita luzatu zitzaion (malgu, baina oinarritzeko, eta ohiko, baldintzetan: lan originalak izatea, gai librea, baina zuzen edo zeharka Nafarroarekiko loturan, luzapena, epeak...). Erantzuna ia erabatekoa izan zen, oso baikorra (nahiz holakoetan, arrazoi desberdinak tarteko, diren guztiak biltzea zaila izan ohi den). Emaizta liburu hau da, literaturgintzan egun diharduten 39 nafar idazleen lagin zabal eta joria (*).

Batzuk ezagunak, beste zenbait, gehienentzako behintzat, ez hainbeste. Denen artean literaturaz gozatzeko parada eskaintzen dute, ugaritasun eta aniztasunean, gai, idazketa, estilo, genero, maila... aldetik. Eta nabarmentzeko modukoa da literatur-bidea oparo jorratu eta jorratzen ari direnen ondoan, etorkizun joria iragartzen duen idazle saila bildu izana eta ezagutaraztea, are, agian, lagungarri gertatzea haien idatz-jardunean.

Fertxu Izquierdo izan da edizioaren koordinatzailea. Baina bidean hainbat jende izan du lagun. Orain irakurleari dagokio zubiaren beste burura iristea eta nafar narratibaren bideetan menturatzea. Bidaia on!

• • •

Egileak*: Aingeru Epaltza, Alberto Ladron, Patziku Perurena, Mikel Taberna, Luis Garde, Juantxo Urdiroz, Patxi Zabaleta, Aitzol Lasa, Jose Angel Irigaray, Fertxu Izquierdo, Josu Jimenez, Eñaut Etxamendi, Antton Luku, Itxaro Borda, Leire Alonso, Izaskun Etxeberria Zufiaurre, Patxi Larrion, Iñigo Astiz, Miren Garazi Epaltza, Iñaki Zabaleta, JL Asensio, Inma Errea, Angel Erro,

Josetxo Azkona, Dani Martirena, Francisco Xabier Mangado, Xabier Agurruza, JuanKar López Mugartza, Felipe Rius, Ander Perez Agote, Ana Jaka, Jon Abril, Iñigo Ibarra, Mikel Rodriguez, Tania Arriaga, Ane Ablanado, Aurelia Arkotxa, Marikita Tambourin, Ipar Alkain.

(*) Partaideen bio-bibliografiak Pamielaren web orriko (www.pamiela.com) atal berezi batean eskegiak daude.



948 326 535 • www.pamiela.com • soltxate@pamiela.com